
'James Campbell ezagutzen dudan gizonik dibertigarriena da. Irakurri liburu hau zure katuari!' – Chris Riddell

MASKOTEN BIZITZA DIBERTIGARRIA




JAMES CAMPBELL
Gizon bizidunik dibertigarriena (haren amaren arabera)

ROB JONES
Oso txakur-marrazkilari trebea (haren katuaren arabera)

desclée

Maskoten bizitza dibertigarriari laudorioak



«Hitz bakoitzarekin gozatu dut. Liburu hau irakurtzen duten guztiak barre-algaraka hasiko dira, niri gertatu zitzaidan bezala. Asko gustatu zaizkit 'Erregutu' eta 'Xantaia emozionala' atalak. Liburuak idazten jarraitzea espero dut».

Emma, 10 urte




«Bikaina da. Oso barregarria. Hurrengorik izango al da? Ned eta Thomasi erakutsi diet eskolan, eta haiek ere liburu bana nahi dute».

Arlo, 11 urte

«Zinez zoragarria. Erabat epikoa, eta inoiz irakurri dudan libururik dibertigarriena».

Ethan, 9 urte




«Maskoten bizitza dibertigarria maite dut. Oso barregarria ETA sarkastikoa da».

Noah, 9 urte

Daphnerentzat -
James Campbell

Olivia eta Alfie x ilobentzat - Rob Jones



© 2018 Bloomsbury Children's Books, London, Great Britain
Testua © 2018 James Campbell
Ilustrazioak © 2018 Rob Jones

Jatorrizko izenburua:
The Funny Life of Pets


Itzulpena © 2020 Irurk Itzulpenak

© 2020, DESCLÉE DE BROUWER, S.A.
Henao, 6 - Bilbao
Tlf.: 94 423 30 45
www.desclee.eus
www.edesclee.com

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein eratako berregintza, komunikazio publiko eta moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Zigor Kodearen 270. artikulua eta hurrengoak).

ISBN: 978-84-330-3118-1
Legezko gordailua: BI-01498-2020

MASKOTEN BIZITZA DIBERTIGARRIA



JAMES CAMPBELL

ROB JONES

desclée



Irakurri hau aurrera egitera ausartu baino lehen . . .



ZER LIBURU MOTA DA HAU?




Hauxe EZ da liburu arrunta.
Ez da batere arrunta.



Hau **ez** da datu fidagarriak jasotzen dituzten liburu horietako bat. Ez duzu informazio baliagarri askorik topatuko hemen. Eskolarako **egokia** izan daitekeen maskotei buruzko informazioaren bila ari bazara, utzi liburu hau berehala eta **urrundu zaitez korrika, oihu egiten** duzularik. Benetan nahi duzuna informazio erabilgarria bada, liburu hauek gomendatzen dizkizut:








Liburu hau lau jende motari zuzenduta dago:

1. **M**askotaren bat duen eta zein **dibertigarriak** diren irakurtzea gogoko duen jendea.
2. **M**askotarik ez duen baina bat, bi, hiru edo **gehiago** izatea gustatuko litzaiokeen jendea.
3. «**Beste norabait joana den**» maskota bat izan duen jendea. Liburu honi esker, zure tristura desagertuko da. Edo okerrera egingo du.
4. **M**askotarik sekula eduki ez, halakorik nahi ez eta haiei buruzko kontuak piperrik ere axola izan ez arren, burua lehertu eta asto bihurtu arte **barre** egitea gogoko duen jendea. Astoak ere etxeko animaliak dira!



Ez irakurri obra hau **liburu arrunta** balitz bezala, hots, 1. orrialdetik aurrera hurrenkera zuzenari jarraituz.

ASPERGARRIA!

Liburu hau aurrera, atzera, saiheska eta gutxi gorabehera **861.000** modu ezberdinetara irakur dezakezu. Orrialde gehienetan **oharrak** aurkituko dituzu hainbat aukerarekin. Bide bat hautatzeko, adierazitako orrialdera jotzea baino ez duzu.





Aukera batzuek oharrak baliatzen dituzte zein orrialdetara jo behar duzun adierazteko. Zenbaitetan «atzera egiteko oharrak» ageri dira, lehengo orrialdera nola itzuli jakin dezazun. Batzuetan, «atzera egiteko ohar» **bat baino gehiago** ikusiko dituzu, aurreko orrialdera itzultzeko hainbat bide dauden seinale. Halakoetan, lehengo orrialdera itzultzea edo oraindik irakurri ez duzun orrialde batera atzera egitea **aukera** dezakezu.


Zenbat aldiz egingo duzu hori?

Egiazko datuei buruzko abisua

Noizbehinka, liburu honek egiazko datuak eskainiko dizkizu.







Kontuz datuekin. Egiazko informazioa etengabe aldatzen doa. Hogei urte barru, liburu hau zure seme-alabei ematen diezunean, liburu honetako datuen erdiak **okerrak** izango dira. Hala ere, liburu honetako *fikziozko* kontu guztiak egia izango dira llargia **aspertu** eta beste norabait alde egin arte.

Hasierako orrialdea

Zorionak! Liburuaren hasierara iritsi zara.
Aukeratu zer atal irakurri nahi duzun lehendabizi.
Gogoratu: ez dago liburu hau irakurtzeko **hurrenkera** zuzen ez okerrik!



Zer dira maskotak?

Has gaitezen oinarrizkoenetik. Zer dira maskotak? Ba, pozten naiz galdetu izanaz.



Maskotak **apartak** dira. Forma eta neurri ezberdinetakoak. Batzuk **xelebreak** dira. Beste batzuk, **ezkatatsuak.** Zenbait **hain dira txikiak**, esku bakarrarekin jaso baititzakezu. Beste hainbat zure tamainaren halako bi dira eta, zure gainean eseriz gero, **leher egiteko** arriskuan egongo zara.

Maskota batzuk oso **baliagarriak** dira; hainbat gauza egin, jendeari lagundu eta lan ere egin dezakete! Beste askok, ordea, zure inguruan eserita igarotzen dute egun osoa, ezer egin gabe; edo, are okerragoa dena, zure armairuaren atzealdean **kaka** egiten dute ezkutuan.



Maskota bat eduki

Dagoeneko badakigu zer diren maskotak. Ez dago horien existentzia ukatzerik. Guztiok ikusi ditugu. **Errealak** dira.

Nola lortuko duzu bat? **Onenaren zain** egongo zara, egunen batean zure ohearen oinetan animaliaren bat agertuko den itxaropenez?

Zer egin ohearen oinetan maskota bat aurkitzen baduzu: 61. or.

Horrek funtziona lezake, baina zaila da halakorik gertatzea. Beraz, nola lortuko duzu maskota bat? Nola **konbentzi** ditzakezu zure gurasoak maskota bat eduki dezakezula? Nola erabakiko duzu zein den animaliarik egokiena zuretzat?

